

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Administrazio Orokorreko teknikarien lan-poltsa eratzeko deialdia eta oinarri espezifikoak. (Administrazio Orokorreko Eskala; Azpieskala Teknikoa; Goi-Mailako Teknikari Klasea; A Taldea eta A1 Azpitaldea.).

Alkate jaunak (2022ko apirilaren 11) DEC-2002/001401 zenbakidun Alkatetza Dekretua eman du, honako hau ebatzita:

Lehenengoa: Administrazio Orokorreko teknikarien (Administrazio Orokorreko Eskala; Azpieskala Teknikoa; Goi-Mailako Teknikari Klasea; A Taldea eta A1 Azpitaldea.) lan-poltsa eratzeko deialdia onartzea.

Bigarrena: Deialdia arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek dekretu honen eranskin gisa jarri dira.

Hirugarrena: Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta webgune instituzionalean argitaratzeko agintzea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluari dagokionez.

Basaurin, 2022ko apirilaren 20an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren



**ADMINISTRazio OROKORREKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSA ERATZEKO
OINARRIAK(ADMINISTRazio OROKORREKO ESKALA; AZPIESKALA TEKNIKO;
GOI-MAILAKO TEKNIKARI KLASEA; A TALDEA ETA A1 AZPITALDEA)**

Lehenengoa. — *Deialdiaren xedea*

Hautaketa prozesua deitzea oposizio bidezko sarbide libreko sistemaren bidez Administrazio Orokorreko Teknikarien (Administrazio Orokorreko eskala; azpieskala tekniko; goi-mailako teknikari klasea; A taldea eta A1 azpitaldea, derrigorrezko 3.HE) lan-poltsa bat eratzeko.

Lanpostuaren eginkizunak une bakoitzean udal organigrama funtzionalean ezartzen direnak izango dira.

Bigarrena. — *Hautagaiek bete beharreko baldintzak*

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

- Europar Batasuneko estaturen bateko herritarra izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea. Hala-ber, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidezko banantzerik ez badago, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta zuzenbidezko banantzerik ez badago, eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak baina mendeakoa badira.
- 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretirako adina ez gainditzea.
- Zuzenbidea, Zientzia Politikoak, Ekonomia edo Enpresa Zientziak, Merkataritzako Intendentea, edo Aktuarioa graduiko unibertsitate-titulua izatea edo horien balio-kidea, edo, bestela, titulu hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- Dagozkion eginkizunak normaltasunez burutzeko gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea, Ezindua Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea aplikatzeari kalterik egin gabe.
- Diziplina-espediente bidez Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren, Tokiko Administrazioaren edo Administrazio Institutuzionalaren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.
- Herri-administrazioetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean ez egotea.
- Euskarako 3. hizkuntza eskakizunaren jabe izatea.
- Administrazio agiriak emateagatiko tasa arautzen duen 10. ordenantza fiskalean araututako azterketa eskubideengatiko tasa ordaindu izana (taulako 6. artikulua, 17. kontzeptua) (azterketa eskubideengatiko tasak Basauriko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden pertsonak hautatzeko prozesuetan). Tasaren zenbatekoa A1 (A) talderako 23,00 eurokoa

Langabezia daudenek, dagozkion lan bizitzaren ziurtagiria aurkeztuta egiaztatzen badute, ez dute tasa ordaindu beharrik izango.

Oinarri honetan ezarritako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunekoak izango dira, eta lanpostuaz jabetzen den egunean eutsi egin beharko zaie.

Hautaketa prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek eskabidean adieraztea eskatutako baldintzak betetzen dituztela, horiek egiaztatze-ko prozeduraren faseari kalterik egin gabe.

Hirugarrena. — *Eskabideak*

Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautaprobetan parte hartzeko, izangaiek dagozkion hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute. Bertan



adieraziko dute bigarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkionak.

Horretarako, eskabideen ataletan, honako hauek adierazi beharko dituzte izangaiek:

- Datu pertsonalak.
- Zer hizkuntza ofizialetan (euskara ala gaztelania) egin nahi dituzten oposizio aldiko ariketak.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den eta aurkeztu den titulazio akademiko ofiziala.
- Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna.
- Era berean, eskabidea aurkezteko unean, langabetu egoera egiaztatu beharko dute azterketa eskubideagatiko tasaren salbuespena lortzeko.

Eskaera aurkezteak berekin dakar datu pertsonalak (izen-abizenak eta telefonoa) eskatzen dituzten beste administrazio publiko batzuei lagatzeko baimena ematea, lanposturen bat premiaz betetzeko.

Eskabide horiek korporazioko lehendakariari zuzendu eta bertako Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, 10 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Internet bidez ere egin ahal izango da eskaera, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskabidea betez: <https://sede.basauri.eus>.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan zehaztutako moduan aurkeztu ahal izango dira.

Dagokion ziurtagiriaren bidez %33ko edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatzen duten izangaiek egokitzen hori beharrezkoa den ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu ahal izango dituzte, horretarako minusbaliotasun horren ehunekoa eta ezaugarriak adierazita.

Izangaiek eskabideetan adierazitako datuei lotuta geratuko dira, eta aldaketa eskatzeko modu bakarra idazki arrazoitu bat aurkeztea izango da, aurrez eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan. Epe hori igarotakoan, ez da horrelako eskaerarik onartuko.

Basauriko Udalaren web orrian hautaketa prozesuari buruzko informazioa emango da, bai eta prozesu horretatik eratorritako egintza guztiei buruzkoa ere, jakinarazpen eta komunikazio ofizialei dagokienez.

Laugarrena. — Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Udaltzatuko lehendakariak ebazpena emango du, eta onartutako eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda hori Udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian argitaratuko da, eta bost egun balioduneko epea emango da bazterketa horren aurka erreklamatzeko eta hura eragin duten faltak edo agiriak zuzentzeko.

Eskabidea epez kanpo aurkeztea ezin izango da zuzendu. Era berean, eskabideak aurkezteko epetik kanpo ezin izango da eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzeko agiririk aurkeztu.

Erreklamazioetarako adierazitako epea igarotakoan, Udaltzatuko lehendakariak beste ebazpen bat emango du, onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrenda onartzeko.

Ebazpen horretan, halaber, Epaimahai Kalifikatzailearen osaera eta oposizio ariketaren data adieraziko dira.

Aurrekoa gorabehera, ebazpen hori eman ondorengo edozein unetan, baita probak egiten diren bitartean ere, epaimahaiak edozein hautagairen eskabidean edo dokumentazioan baztertze kausa den zehaztasunik eza edo faltsutasuna ikusten badu, hori kon-



ponezina dela ulertuko da beti, eta epaimahaiak alkatetzari proposatuko dio hautagai hori baztertzea ebaztea.

Bosgarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Epaimahaiaren osaera Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan ezarritakora egokituko da, eta mahaiburu batek, idazkari batek eta hiru mahaikidek osatuko dute. Osaera horren berri onartuen ebazpenean emango zaie izangai guztiei.

2. Nolanahi ere, Epaimahai Kalifikatzaileak bere lanetan aholkulariak sartzea erabaki ahal izango du. Aholkulariak dagozkien espezialitate teknikoen jardunera mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu, eta Udalbatza-ko lehendakariari jakinarazi beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta izangaiek ezetsi ahal izango dute, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

4. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira.

5. Epaimahai Kalifikatzailea, gainera, titularrekin batera, haren idazkari eta mahaiburu eta mahaikide izateko izendatuko diren ordezkoei osatuko dute.

6. Epaimahai Kalifikatzailea ezin izango da eratu, eta ezingo du jardun, kideen erdia baino gehiago bertaratu gabe, titularrak zein ordezkoak izan.

7. Epaimahai Kalifikatzaileak prozeduraren edozein unetan jakiten badu izangairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean emango zaio horren berri lehiaketa deitu duen agintaritzari. Egitatezko akatsak edozein unetan konpon daitezke, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Seigarrena. — Hautaketa prozesua

Hautagaiak oposizio libreko sistemaren bidez hautatuko dira.

Oposizioaren fasea

Ezagutzei buruzko lehen ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea

Bi atal izango ditu, eta bakoitza bere aldetik gainditu beharko da:

A) atala. Idatziz erantzun beharko zaio, Epaimahaiak ezartzen duen gehieneko denbora tartean, oinarri hauei dagokien gai zerrendako I. zatiko (I. eranskina) edukiei buruzko lau erantzun aukera izango dituen galdetegi bati. Okerreko erantzunak zigortuko dira.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin asmatutako erantzunen kopurua ken huts egindakoen herena ($P = A - E/3$). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira erroretzat hartuko.

A) ataleko azken puntuazioa 0 eta 10 puntu artekoa izango da, eta bi dezimal onartuko dira; proba gainditzeko 5 puntu lortu beharko dira.

Bigarren ariketa praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea

Ariketa praktikoa bat edo gehiago egingo dira, deialdiko gaitegiko II. zatian (zati berezia) jasotako lanpostuari buruz eskatzen diren ezagutzeekin zuzenean lotutakoak.

Proba hau egiten den bitartean, izangaiek uneoro erabili ahal izango dituzte paperezko lege-testuak. Ezingo da gailu edo euskarri elektronikorik erabili.

Izangaiek ariketa osorik irakurri beharko du epaimahaiaren aurrean, jendeaurreko saio batean. Ariketa osoa irakurri ondoren, epaimahaiak beharrezko iritzitako galdera guztiak egingo ditu, gehienez ere hamabost minutuz, proposatutako irtenbidearen ego-



kitasun-maila zehazteko. Horretarako, egokitzen jotzen dituen laguntza-elementuak eta izangaiak eranskinean agertzen den programako gaietarako buruz duen ezagutza-maila erabili ahal izango dira.

Epaimahaiak zehaztuko du irakurketa horiek non, noiz, zer ordutan eta zer bitartekoren bidez egingo diren.

Ariketa honetan, funtsean, honako hauek baloratuko dira: ezagutza-maila orokorra, ordenamendu juridikoaren interpretazio orokor egokia, sintesi-gaitasuna, planteamenduen sistematika, arrazoiketa juridikoa, ondorioen formulazioa eta, hala badagokio, planteatutako arazoak ebazteko proposamenak.

0 eta 50 puntu bitarteko puntuazioa izango du, bi dezimal ere onartuko dira, eta 25 puntura iritsi beharko da proba gainditzeko.

Zazpigarrena. — Prozesuaren emaitza

Hautaketa prozesuaren amaierako kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztien baturak zehaztuko du (betiere gainditu badira). Puntuazio berdinketak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean ezarritako irizpideen arabera ebaztuko dira. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioentzako hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretako 9.1 oinarrian ezarritakoaren arabera ebaztuko dira. Oinarri horiek Alkatetzaren maiatzaren 20ko 2070/2019 Dekretuaren bidez onartu ziren (2019ko ekainaren 11ko 110. Zenbaki-dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta).

Zortzigarrena. — Aldi baterako lan-poltsak

Hautaketa-prozesu horren emaitzaren ondorioz, lan-poltsa bat eratuko da, hasiera batean 3 urteko iraupena izango duen lan-poltsa bat eratuko da. Lan-poltsa hori oposizioari ariketa guztiak gainditu dituzten izangaiekin osatuko da, talde, eskala eta azpieskala horretako langileen aldi baterako beharrak betetzeko erabiliko da, eta Basauriko Udaleko lan-poltsak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortuta geratzen bada, lehentasuna izango dute, beste lan-poltsa batzuen aldean, derrigorrezko eta baztertze -indarreko ariketa gehien gainditu dituzten pertsonen zerrendek, gainditutako ariketa horietan lortutako puntuazio osoaren hurrenkeraren arabera.

Bederatzigarrena. — Onartutakoen zerrenda, dokumentuak aurkeztea

Hautaketa prozesua amaitutakoan, epaimahaiak onartutakoen zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren arabera, eta zerrenda hori Udalbatzako lehendakariari bidaliko dio, lan-poltsa eratzeke berariazko proposamenarekin. Proposamena loteslea izango da, baina berrikusi ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.

Lan-poltsan sartzeko proposatutako oposizioak hautaketa prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte Udalbatzaren Erregistroan, gainditu dutenen zerrenda argitaratu eta 10 egun balioduneko epean.

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
2. Deialdian eskatutako betekizun espezifikoak justifikatzeko dokumentuak (unibertsitate tituluaren fotokopia konpultsatua, hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria).

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsan sartzeko proposatutako oposizioak dokumentazioa aurkezten ez badute edo eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, ezin izango dira lan-poltsan sartu, eta egindako jarduerak guztiak balio gabetuta geratuko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna alde batera utzi gabe.

**Hamargarrena. — Izendapena**

Dokumentazioa aurkezteko epea igarota, hautagaiak bitarteko funtzionario izendatuko dira, Basauriko Udalak Administrazio Orokorreko teknikarien lanpostuei dagokienez dituen beharren arabera.

Izendapena pertsonalki jakinaraziko zaio izendatutako pertsonari.

Interesdunak, justifikatutako arrazoirik gabe, karguari uko egiten diola ulertuko da, aipatutako epe edo baldintzetan lanpostuaz jabetzen ez bada. Kasu horretan, ordeztuko da hautaketa-prozesuaren emaitzaren puntuazio-ordenari jarraituz, aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Hamaikagarrena. — Lan harremana etetea, ezeztatzea eta amaitzea

Bitarteko funtzionarioak kargua utziko du, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, hura izendatzea eragin zuen arrazoia amaitzen denean ere.

Izendapena honako arrazoi hauengatik ezeztatuko da:

- Karrerako funtzionarioek lanpostua modu arautuan betetzea, legez ezarritako edozein prozeduraren bidez..
- Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea eragiten duten antolaketa arrazoiengatik.
- Izendapenean berariaz jasotako baimendutako epea amaitzeagatik.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 10.4 artikulua-ren kasuan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, eta enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak aldatua), izendapena egin zenetik 3 urteko epea igarotzen denean.

Hamabigarrena. — Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak sortzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa behar bezala antolatzeko behar diren erabakiak hartzeko baimena du, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horien eta epaimahai kalifikatzailearen jarduren ondoriozko administrazio egintzen aurka egin ahal izango dute, Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusi ez den orori dagokionez, honako hauetan ezarritakoari jarraituko zaio: Estatuko Administrazioaren zerbitzura dauden langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra (364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea eta haren ondorengo aldaketa, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

**GAITEGIA****LEHENENGO ATALA****GAITEGI OROKORRA**

1. Konstituzioa: kontzeptua, izaera eta motak. 1978ko Espainiako Konstituzioa: egitura eta printzipio orokorrak. Botereen banaketa. Koroa Konstituzioan.
2. 1978ko Espainiako Konstituzioan jasotako oinarritzko eskubideak eta betebeharrak. Haien bermeak eta etetea. Haien babesa.
3. Gorte Nagusiak. Herriaren Defendatzailea. Arartekoa.
4. Gobernua. Gobernuaren eta botere legegilearen arteko harremanak.
5. Botere Judiziala. Justizia Administrazioa EAEn. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, eremua eta osaera.
6. Konstituzio Auzitegia. Eskumenak eta funtzioak. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa, babes-errekurtsioa, eskumen-gatazkak eta konstituzio-kontrakotasuneko arazoak. Gatazkak toki-autonomiaren defentsan.
7. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia Estatutuak: haien esanahia. Euskal Autonomia Estatutua. Aurrekari historikoak. Indarrean dagoen Estatutua: haren egitura. Estatutuaren erreforma: a) Konstituzioaren arabera, b) Euskal Estatutuaren arabera. Ohiko prozedura eta prozedura bereziak.
8. Eskumenen banaketa Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artean. Eskumenen banaketa Konstituzioan eta Euskal Autonomia Estatutuan.

BIGARREN ATALA**GAITEGI ESPEZIFIKOA**

9. Administrazioa Legearen eta Zuzenbidearen mende jartzea. Zuzenbide Publikoaren iturriak. Legea: lege-motak.
10. Erregelamendua: kontzeptua eta motak. Erregelamendua egiteko prozedura. Erregelamendua egiteko ahalaren mugak eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa. Instrukzioak eta zerbitzu-aginduak.
11. Ohitura. Administrazio-praktika. Zuzenbidearen printzipio nagusiak. Beste iturri batzuk.
12. Administrazio Publikoaren posizio juridikoa. Administrazio-ahalak. Ahal diskrezionala eta arautua.
13. Interesdunak prozeduran: jarduteko gaitasuna eta interesdunaren kontzeptua.
14. Interesdunen identifikazioa eta sinadura administrazio-prozeduran. 15. Administrazio Publikoen jardura: jarduteko arau orokorrak. Terminoak eta epeak.
15. Administrazio-egintza: administrazio-egintzen baldintzak eta eraginkortasuna.
16. Administrazio-egintzak deusezte eta deusezgarritasuna.
17. Administrazio-prozedura: prozeduraren hasiera, ordenazioa, instrukzioa eta amaiera.
18. Ondare erantzukizuneko prozedurak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.
19. Zehapen-prozedurak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.
20. Administrazio-egintzak betearaztea. Betebeharrekotasuna.
21. Administrazio-bideko egintzak berrikustea. Berrikuspena eta administrazio-errekurtsioak.
22. Toki Araubidea: konstituzio-printzipioak. Toki-autonomia eta tutoretza. Estatuaren oinarritzko legeria eta haren arau-garapena.
23. Toki Korporazioetako kide hautetsien estatutua.



24. Udal-mugartea. Udal-biztanleria. Auzotarra bereziki aintzakotzat hartzea. Udal-erroldatzea.
25. Araubide erkideko udalerrien antolaketa. Erregelamendu organikoa. Beharrezko organoak eta organo osagarriak. Talde politikoak. Biztanleria handiko udalerrien antolaketa.
26. Udal-eskumenak: zehazteko sistema. Eskumen propioak, partekatutakoak eta eskuordetutakoak. Gutxieneko zerbitzuak. Zerbitzuen erreserba.
27. Kide anitzeko organoen bilkuren eta erabakien araubidea. Aktak, ziurtagiriak, komunikazioak, jakinarazpenak eta erabakien argitalpena. Dokumentuen erregistroa.
28. Toki-erakundearen ordenantzak eta erregelamenduak. Motak. Horiek egiteko eta onartzeko prozedura.
29. Aurrekontua: kontzeptua, izaera eta motak. Aurrekontuaren araubide juridikoa. Toki-aurrekontuak. Kontabilitatea eta kontuak.
30. Toki-ogasunak: diru-sarreraren sailkapena. Ordenantza fiskalak.
31. Tasak, prezio publikoak eta kontribuzio bereziak. Erreferentzia berezia toki-mailan.
32. Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Katastro-kudeaketa eta zerga-kudeaketa. Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko zerga.
33. Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga.
34. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: eremu objektiboa eta eremu subjektiboa. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.
35. Kontratuaren atalak. Kontratazio-organoa, toki-esparruko eskumenak, kontratazio-mahaia eta kontratatzailearen profila. Enpresaburuaren kontratazio-gaitasuna, kaudimena eta debekuak.
36. Administrazio Publikoen kontratuak prestatzeko eta adjudikatzeko arau orokorrak. Errekurso berezia kontratazio-arloan.
37. Administrazio-egintzaren moduak. Sustapena eta haren baliabideak. Dirulaguntzen azterketa berezia. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Dirulaguntza publikoei dagozkien xedapen orokorrak, aplikazio-eremua eta xedapen komunak.
38. Administrazio Publikoen zehatzeko ahalaren printzipioak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehatzeko ahalak. Toki-erakundearen zehatzeko ahalak.
39. Nahitaezko desjabetzea. Kontzeptua, elementuak eta izaera juridikoa. Prozedura orokorra. Presako prozedura. Erreferentzia gainerako prozedura bereziei. Jurisdikzio-bermeak. Desjabetutako ondasunak itzultzea.
40. Jabetza publikoak: tipologia. Jabari publikoak: kontzeptua, izaera eta elementuak. Jabari publikoaren afektazioa eta mutazioak. Jabari publikoaren araubide juridikoa. Erabilera: erreserba eta emakida.
41. Administrazioaren erantzukizuna. Bilakaera eta egungo araubidea. Kalte ordaingarriak. Administrazio-egintza eta -prozedura erantzukizunaren alorrean.
42. Funtzionario publikoak. Kontzeptua eta motak. Funtzio publikoaren egitura. Enplegatu publikoei buruzko estatuko eta erkidegoko legeria. Lanpostuen zerrenda.
43. Funtzionarioak eta beste enplegatu publiko batzuk hautatzea urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.
44. Funtzionario-harremana azkentzea. Funtzionarioen betebeharrak eta eskubiak. Eskubide ekonomikoak.
45. Funtzionarioen diziplina-araubidea. Zerbitzari publikoen erantzukizun zibila eta penala.



46. Hizkuntza-normalizazioa Euskal Funtzio Publikoaren Legean. 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
47. Toki-erakundeen jarduera-moduak. Administrazioaren esku-hartzea jarduera pribatuan. 65. Lizentziak. Izaera juridikoa, araubide juridikoa eta lizentziak emateko prozedura.
48. Lurraldearen antolaketa. Haren erregulazioa EAEn. Lurraldea antolatzeko tresnak. Estatuko eta erkidegoko hirigintza-legeria. Aurrekariak eta indarreko legeria.
49. Lurzoruaren sailkapena: motak eta kategoriak Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean. Kalifikazioa. Lurzoruaren jabetza-araubidea.
50. Hirigintza-plangintza: plan-motak eta haien izapidetzea. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Plangintza orokorraren bateragarritasuna. Sektorizazio-planak.
51. Garapen-plangintza: garapen-plan motak. Hirigintza-antolamenduaren beste tresna batzuk izapidetzea eta onartzea. Plangintzarekin bat ez datozen eraikinak eta eraikuntzak. Plangintza aldatzea eta berrikustea.
52. Hirigintza-antolamendua gauzatzea. Obren eta eraikuntzen kontserbazioa. Legezko aurri-egoera. Betearazteko aginduak.
53. Hirigintza-legezkotasuna kontrolatzeko mekanismoak. Hirigintza-legezkotasuna bermatzea eta babestea. Hirigintza-ikuskapena. Hirigintza-alorreko arau-haustekak eta zehapenak.
54. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua: Lehenengo atala: ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa EAEko ingurumen-legerian. Ingurumen-baimen bakarra behar duten jarduerak.
55. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua: Bigarren atala: jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak eta alde zuzeneko jakinarazpena behar duten jarduerak.
56. Ingurumen-alorreko ikuskapena eta kontrola. Ingurumen-arloko Zehapen Araubidea.
57. Genero-politikak. Emakumearen sustapena. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoa.
58. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Gobernu irekia, gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea.
59. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra. Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legea. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.